

Balio al du ezertarako (euskal) literatur kritikak?

- **Kritikari euskaldun suizida**

“Balio al du ezertarako euskal literatur kritikak?”. Pentsan aritzen naizenez, egunkari eta aldizkarietan ateratzen diren kritikak etorri zaizkit burura mahai-inguru honen titulua ikusita. Beraz galdera birformulatu dut: “Balio al dute ezertarako euskal prentsako kritikek?”. Erantzuna ezezkoa balitz, kritika horiek ezertarako balioko ez balute, bigarren galdera bat ere egin beharko litzateke: “Balio al du ezertarako euskal prentsak?”.

Baina, hori ere galdera partziala da. Azken finean, prentsak ezin du berez hizkuntza batean egiten den literatura osoa salbatu. Beraz: “Balio al du ezertarako euskal literaturak?” ere galdetu beharko genuke.

Hori ere murriztegia da, ordea. Euskal literaturak ezertarako balio ez badu, hizkuntza berean egiten diren beste mila jardueraren balioa ere auzitan jarri beharko baikenuke: antzerkia, kanta, telebista programak, irratia... Beraz, laburbiltzeko: “Balio al du ezertarako euskarak?”.

Ño, urrutira eramán gaitu mahai-inguru honek hasi eta berehala.

Existitzen den zerbait hain errotik kuestionatzen duenez, absurduari egindako apelazioa iruditzen zait, hein batean, mahai-inguru honen gaia; eta gogora ekartzen dit Albert Camus-ek *Sisiforen mitoa* abiatzeko idatzi zuen hura: “Ez dago problema filosofiko serio bat besterik: suizidioa”. Gurera ekarrita, oinarrizko planteamendua litzateke: “Euskaraz bizi nahi dugunok suizidatu egin beharko al genuke?”.

Ez dut fianbrerik ikusten hemen. Beraz, galderak erantzuna baduela esango nuke. Euskal literatur kritikak balio du zerbaiterako, kontsideratzen dugulako euskarazko kritikak idaztea, hilda egotea baino hobea dela.

Barka hasiera exageratu xamar hau. Serioxeago jarri beharko dugu hemendik aurrera.

- **Mahai herrena**

Prentsan egiten den euskal kritikagintzari dagokionez, esango nuke, azken aldi honetan zerbaiteko balio izan badu, mahai herrena orekatzeko balio izan duela.

Esplika dezadan. Victor Barrera Enderle kritikari mexikarrak *Literatura eta globalizazioa* saiakera laburrean letra Hispano-Amerikarren “Alfaguarizazioaz” hitz egiten du. “Alfaguarizazio” horren barruan sartzen du, Franco hil zenez geroztik gaztelaniazko literaturak bizi izan duen transformazio prozesu sakona: zentsuraren bukaerak, estatuak gai kulturaletan hegemonia galtzeak, argitaratutako titulu-kopurua ugartzeak... Horiek guztiak biltzen ditu letra Hispano-Amerikarrek azken hamarkadetan bizi izan duten nolabaiteko erregularizazio formal baten barruan (beraz, Alfaguara argitaletxearen izena baliatzen duen arren, fenomeno orokorrari buruz ari da).

Ñabardura asko egiten ahal zaizkio hori euskal esparrura ekartzeko edozein saiakerari. Bestelako *tempoa* izan dugu hemen, baina nire hipotesia da, gutxienez 1990eko hamarkadatik aurrera, “Elkarrizazio” prozesu bat bizi izan duela euskal literaturak. Banaketa hobea, titulu kopurua emendatzea... Argi gera dadila: fenomenoak ez du Elkar argitaletxea bakarrik hartzen bere gain, gutxi-asko sistema osoaren ezaugarria da.

Hipotesi hori ontzat emanda, zein izan da prentsaren zeregina? Nahiko nabarmena da azken bi hamarkadetan euskal agerkarietan literaturaz publikatu diren testu gehienak promozioaren esparruan kokatzen direla: liburu-aurrezpenei buruzko albisteak, idazleei elkarrizketak, nobedadeekin harremana duten artikulua, sariekin erlazionatutakoak... Hau autokritika da: esango nuke denbora askoan bizkarra eman diogula produkzio literarioaz modu “baloratiboan” hitz egiteari, baita berez horretarako erresebatuta zeuden espazioetan ere. Oraindik zuzendu ez den joera da, gainera. Ematen du, adibidez, liburu baten interpretatzaile zilegi bakarra, idazlea bera dela. Eta horrek mahai herrena sortu du. Beste pertsonen kritikarik kontenplatu ez duen sistema literarioa, alegia.

Baina gauzak zer diren, kritikarik ez zegoela urte askoan esan ondoren, auskalo zein faktore tarteko, kritika pisua hartzen hasi da euskal prentsan. Agian ez kuantitatiboki, baina bai kualitatiboki. Liburuak aupatzeko bai, baina defenestratzeko ere inolako erreparorik ez daukan kritika. Eta horrek, mahai herrenari altxagarria jartzean bezala, balantzaren bat edo beste eragin du

aurreko orekara ohituta zeudenengan (zuzendariari gutunak idazten dizkioten idazleak, literatura eskoletan kritikariak “ume mukizu”-tzat jotzen dituzten idazle beteranoak, hedabideetan kritikari batzuk isilarazteko mugimenduak...).

Ezertarako balio al duen euskal literatur kritikak? Polemikatxo batzuk sortzeko balio izan du, posizio-hartzeak eragin ditu eta epe ertainera, espero dut, balioko duela, ez dadin egon auzitan jarri ezin den idazlerik edo obrarik.